



2023ko URRIAREN 23an GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAK EGINDAKO BILKURAREN AKTA

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteizen), 2023ko urriaren 23an, 12:00etan, hasi da Kontseilu Errektorearen batzarra, eta ondorengo pertsonak egon dira:

- Jose Antonio Rodríguez Ranz jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (aurrerantzean, eLankidetzeta) eta Agentziaren Kontseilu Errektoreko lehendakari Nerea Melgosa Vega andrearen ordezkari. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Osasun Saileko Osasun Programen eta Herritarren Harremanetarako aholkularia. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Asier Aranbarri Urzelai jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakaritzaren ordezkari gisa. Batzarrean bertan egon da.
- Bokala: Fernando Iturriaga jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Jone Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria. Batzarrean bertan egon da.
- Bokala: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Batzarrean bertan egon da.
- Bokala: Martin Iriberrri jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Elsa Fuente Do-Rosario andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari. Batzarrean bertan egon da.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria. Batzarrean bertan egon da.

Era berean, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko xedez, Koordinazio Teknikoko arduradun Alazne Camiña andrea, eLankidetzako lankidetzako teknikari Iker del Río jauna eta eLankidetzako lankidetzako teknikari Pilar Díez andrea bertaratu dira.

Sarrera

Jose Antonio Rodríguez Ranz jaunak hartu du hitza, batzarrera bertaratu direnei ongietorria egiteko eta, horrenbestez, batzarra hasi du; hauxe izan da gai-zerrenda:

- 1. 2023ko urriaren 3an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.*
- 2. Garapenerako lankidetzaren programen dekretua Gobernu Kontseiluari helarazteko proposamena.*
- 3. 2023ko proiektuetarako laguntzak emateko proposamena onartzea.*
- 4. 2023ko zuzeneko diru-laguntzetarako proposamenak onartzea.*
- 5. 2023ko Ignacio Ellacuría Saria emateari buruzko informazioa.*
- 6. Ekintza humanitarioetarako 2023ko laguntzei buruzko informazioa.*
- 7. Galde-eskeak.*

1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2023ko urriaren 3ko bilkuraren akta onartu da, bertaratu diren guztien aldeko botoekin.

2. Garapenerako lankidetzaren programen dekretua Gobernu Kontseiluari helarazteko proposamena

Iker del Ríori eman dio hitza Jose Antonio Rodríguez Ranzek garapenerako lankidetzaren programen dekretu berria aurkeztu dezan.

Testuaren elaborazio-prozesua eta planteatzen diren ildo nagusiak azaldu ditu Iker del Ríok, ildo horiek zehaztuko baitute programen onarpena. Kudeaketa-ereduan izan diren berritasunak ere aipatu ditu, eta amaitzeko adierazi du aldaketa horiekin aurreko arauditik eratorritako zailtasun nagusiak desagerrarazten direla, eta, horrekin batera, anbizio handiagoko eta ezaugarri espezifikoak dituen tresna bat eratzen dela eLankidetzak eta euskal lankidetzaren publikoak bere esku dituen erreminten markoan.

Gobernu Kontseiluari helarazteko proposamenaren bozketa planteatu du sailburuordeak, eta onartu egin da, boto guztiak aldekoak izanik.

3. 2023ko proiektuetarako laguntzak emateko proposamena onartzea

2023ko proiektuetarako laguntzak emateko proposamenaren aurkezpena sartu du Jose Antonio Rodríguez Ranzek proposamen hori eLankidetzaren jarduketa-ardatz garrantzitsuena bezala, funtsen bolumenarengatik zein sustatzen duen agente ekintzen kopuruarengatik, eta Alazne Camiñari eman dio hitza, eta hark zehatz-mehatz azaldu du akta honi eranstean zaien proposamenaren laburpena.

Aurkezpenaren ondoren, laguntzak emateko proposamena onartzea proposatu du Jose Antonio Rodríguez-ek, eta gehiengo bidez onartu da, aldeko 6 botorekin eta 3 abstentziorekin.

4. 2023ko zuzeneko diru-laguntzetarako proposamenak onartzea

Ondoren, Pilar Díezi eman dio hitza sailburuordeak, eta hark Gazarako UNRWAK egindako larrialdi-deialdirako zuzeneko dirulaguntza azaldu du.

Gazako egoerari buruzko datuak eguneratuz hasi da, Kontseilua egin den egun hau erreferentzia gisa hartuta eta betiere Israelen eta Hamasen arteko gerraren markoan, eta amaitzeko adierazi du laguntza horrekin lagundu egingo dela elikagaiekin, higiene-artikulekin, sendagaiekin eta laguntza sanitarioarekin lotutako berehalako premiei erantzuten, baita UNRWaren zentroetan errefuxiatutako 120.000 pertsoneri aterpea eta babesa ematearekin lotutakoei ere.

Laguntza 250.000€ da guztira, eta Lehendakartzaren laguntzarekin batera (hori ere 250.000€-ko laguntza), 500.000€ izango litzateke guztira Eusko Jaurlaritzak emango duen laguntza.

Bozkatu egin da eta aho batez onartu da

5. 2023ko Ignacio Ellacuría Saria emateari buruzko informazioa

Ondoren, Paul Ortigari eman dio hitza presidenteari, eta hark xehetasunak eman ditu 2023ko Ignacio Ellacuría Sariaren deialdiaren eta saritutako pertsonaren inguruan. Zehazki, Paulek azaldu du irailaren 27an Ignacio Ellacuría Sariaren epaimahaiak saria Seynaubou Male Cissé-ri ematea erabaki zuela, hau da, Senegalgo emakume aktibista eta kooperanteari, Mundubat erakundeak proposatuta.

6. Ekintza humanitarioetarako 2023ko laguntzei buruzko informazioa.

Pilar Díezi eman dio hitza Jose Antonio Rodríguezek, eta hark 2023ko ekintza humanitarioen proiektuen deialdiaren azken emaitza aurkeztu du, emaitza horrekin agortzen baita PREren deialdiaren diru-hornidura 2023an.

Azaldu du deialdi horren hasierako 4.750.000€-ko hornidura urte-hasierako aurrekontu-gehikuntzarengatik (500.000€) gehitu dela, baina baita EHE ekintza humanitarioen estrategien deialdiaren eman izan ez zen 41.971,06€-ko gerakinari esker ere, eta, hori horrela, 5.291.971,06€ izan da azken hornidura. Gauzak horrela, hirugarren balorazio-batzordean beste 4 ekimen onartu dira, bi Afrikan, bat Libanon eta beste bat Kolonbian, eta bakoitzaren xehetasunak eman ditu.

Deialdia laburbildu du adieraziz 29 laguntza eman direla aurkeztutako 32 proiektuetan, eta haietako 3 atzera bota direla, 1 baztertuta geratu dela, eta beste 4 ukatu egin direla funtsak agortu direlako. Nabarmendu du, gainera, funtsen % 65 tokiko erakundeek – nazioartekoak ez direnek– kudeatuko dutela.

7. Galde-eskeak

Beste gairik planteatu ez denez, Jose Antonio Rodríguezek eskerrak eman dizkie bertaratu direnei, eta batzarra amaitutzat jo du, 13:37an. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehen paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE Jose Antonio Rodríguez Ranz, Giza
Eskubide, Memoria eta Lankidetzako
sailburuordea

Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektoreko idazkaria
GLEAko zuzendaria